



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abailduta 'lur jota, eroria'	« Abailduta zegoen, eta eskuan zuen zapiak negarrez aritua zela adierazten zuen.»	(132)
abistu 'airean eginiko soinua'	«...bere belarriek zehazki bereizten zituzten etxeko zaratak eta enaren abistuak . Oinak, berriz, ia ez zion minik ematen.»	(82)
adeitasunez 'gizabidez, gizalegez'	«Begurune eta adeitasunezko hitzetan bilduta egon arren, bere ezetza erabatekoa izan zen.»	(11)
adeitsu 'errespetuzkoa, borondate'	«Esku adeitsu batek katilu bat kafe zerbitzatu zion.»	(120)
aginpidez esan 'irmo, gogor esan'	«— Utzidak bukatzen —esan zion Aranburuk aginpidez .»	(52)
ahalguztidun 'botere handien jabe'	«Handi eta ahalguztidun sentitu nintzen...»	(128)
ahapeka 'ixilka-mixilka, xuxurlatuaz'	«Holakoxea duk —gehitu zuen ahapeka .»	(57)
ahobero 'berritsua, hitzontzia'	«...bere idealaren alde bizia emateko edo lagun hurkoa hiltzeko gertu zegoena, baina, aldi berean, disziplinarik gabea, ahoberoa , inozoa.»	(22)
aieneka 'kexuz, intzirika'	«Bordelai hori, berriz, beti aieneka zebilek Parisen utzi zuen emakume batengatik.»	(53)
aldarte 'umorea, jarrera'	«— Ados. Eraman nazazu. Ea bere aldarte hori biharko goxatzen zaion —erantzun zion sargentuak.»	(33)
aldian behin 'noizean behin, noizbehinka'	« Aldian behin , garondoan Barrezen eskua antzematen zuen. Burua altxatu eta zerbait ematen zion edatera, esnea edo.»	(81)
amarru 'trikimailua, engainua'	«"Laster konturatuko da amarruaz . Baina ordurako urrutiegi izango nau"...»	(19)
ardaila 'arrabotsa, zaratotsa'	« Ardaila eta dantza oso gogoko ez bazituen ere, halako poz-ikara bat sentitu zuen Saldiasek.»	(92)
arerio 'etsaia, aurkaria'	«Handinahia eta harroa zen, baina ez zen arerioarentzat lanean ari.»	(88)
argixinta 'argi izpia'	«Zumalakarregiren kolumnak lehen argixintarekin atera eta bideari ekin zion Carandolet jeneralaren agintepeko tropa liberalen bila.»	(54)
arian-arian 'pittinka-pittinka, apurka-	«Berak ez zeukan arian-arian joatea beste erremediorik.»	(14)
arnas-purrusta bota 'bafada, airea indarrez bota'	«Muino baten aldapan gora jotzen zuen bideak, eta zaldiak arnas-purrusta bat bota, kexati, eta buruari eragin zion...»	(13)
arrenkuratsu 'damuzkoa'	«...barrez hasi zen. Barre lehorra zen, arrenkuratsua .»	(77)
arrotza 'arraroa, estrainioa'	«Ezta ezer arrotzik aditzen ere, soilik bere zaldiaferra ferra-hotsa lurra kolpatzean.»	(14)
atxiki 'harrapatu, oratu'	«Izuaren atzaparra bere giharreak atxikitze ko zorian zegoela sentitzen zuen, eta oldartu egiten zen posibilitate horren aurka...»	(18)
atzimurkatu 'txatxamarkatu, hatzekin sakatu'	«Saldiasek zuztar bat atzimurkatu eta loretxo batzuk eramane zituen sudurrera.»	(97)
aurrena 'lehenengo, lehenbizi'	«Berehala, don Carlosen jarraitzaileak matxinatu egin ziren, aurrena Bilbon, hurrena Euskal Herri osoan...»	(12)
auskalo 'batek jakin, nork jakin'	«Toki baketsu eta lasaiaren itxura (...) —sukaldeetako kea tximietan gora doi-doi eta arimarik ez kaleetan... —baina auskalo .»	(13)
auzi 'arazoa, gaia'	«...oso aberatsa duk eta asko lagundu zioke gure auziari —erantzun zion Aranburuk mokote samar.»	(58)
azitraia 'landare mota'	«...ur hotzean edukitzen dizkiat, eta gero, ondo iragazi ondoren, kazola batean jarri urdaia, perrexil sorta bat, azitraia , gatza eta...»	(49)




aztoratuta 'kezkatuta, arduratuta'	«—Zertxobait aztoratuta ikusten zaitut, Alfonso. Horrenbesteko beldurra ematen al dizu ezkontzak?»	(62)
aztoratuta 'asaldatuta, kezkatuta'	«Sara naiz —esan zuen Saldiasek, apur bat aztoratuta .»	(38)
barrenak izan 'adorea, ausardia izan'	«Baina ez nuen nire asmoa azkeneraino eramateko barrenik izan .»	(147)
begi larriko 'begi ernekoa'	«Hogeita hamar bat urteko gizona zen, argala eta begi larrikoa .»	(57)
begirale 'zaintzailea, behatzailea'	«Nor ote zen zaldiz eta uniformerik gabe zihoan kankailu hura? Begirale bat? Bidea erakutsi behar zien nekazaria?»	(55)
beheko sua 'tximinia azpian egiten dena'	«Kriseiluak itzalita zeudenez, sakristiako argi bakarra beheko suak ematen zuena zen.»	(47)
belarrimotz 'irain hitza'	«—Kaixo, belarrimotzak! —erantzun zuen Don Ignaziok.»	(117)
bermatu 'finkatu, ziurtatu'	«Saldiasek ukalondoak mahaian bermatu eta aldamenetara begiratu zuen.»	(48)
bidatxur 'bidezidorra, bidexka'	«...baina begibistakoa da hau ez dela zehazki bidea, bidatxurra baizik, nahiz primerakoa izan.»	(16)
borborka 'bizi-bizi, gal-gal'	«Festa hasia dago eta laster herri osoa borborka egongo da.»	(93)
burduntzali 'zalia, gizkeia'	«Ura eskatu, eta irrika biziz burduntzalitik edaten hasten zenero, azentu frantses arin batez...»	(74)
burko 'burukoa, almohada'	«Zergatik ez zuen burkoaz ito?»	(82)
burrunbatu 'durundatu, ozenki esan'	«—Ene gaxo <i>débutant!</i> — burrunbatu zuen begi larriak areago zabalduz.»	(68)
burumotz 'buruzagi gabe'	«...infiltratuak badaudela pentsatzeko, armada karlista burumotz utzi nahi duten infiltratuak, hain zuzen ere»	(76)
dardarra 'ikara, mugimendutxoa'	«...hantxe basoaren mintzoa, zuhaitzen dardarra eta hosto berdeen xuxurla; hantxe, halaber, txorien mintzo zorrotza...»	(17)
deserosotasun 'desegokitasuna'	«...baina halako ezinegon batek, susmoa baino areago deserosotasuna zen zerbaitek...»	(23)
doi-doi 'ozta-ozta, juxtu-juxtu'	«Toki baketsu eta lasaiaren itxura (...) —sukaldeetako kea tximietan gora doi-doi eta arimarik ez kaleetan...— baina auskalo.»	(13)
egokitu 'bat egin, gelditu'	«...baina beren balak oholesi edo hondar-zakuekin egokitzen ziren, eta ahaleginak huts egiten zuen.»	(105)
egokitutakoa 'suertatutakoa'	«Gizon arrunt bat, bizitzaren gorabeherengatik, leialtasunez, bide arriskutsu bat hartu beharrean egokitutakoa .»	(23)
egoskor 'egosgogor, terko, temati'	«Nik askotan esan nion ez etortzeko, baina egoskor jarri zen.»	(68)
enara 'elaia, txori mota'	«...bere belarriek zehazki bereizten zituzten etxeko zaratak eta enaren abistuak. Oinak, berriz, ia ez zion minik ematen.»	(82)
enbarazu egin 'estorbu egin, traba egin'	«Osaba Tomasek ez zuen gogoko inork bere zelatariei enbarazu egitea .»	(33)
erauzi 'atera, arrankatu'	«Saldiasek ideia hura burutik erauzi eta alde egin zuen berehala.»	(138)
erdeinu 'gorrotoa, ezinikusia'	«...esan zuen Saldiasek, erdeinu ikutu batez.»	(58)
erdiragarri 'urragarria, minezkoa'	«Noizbehinka, garrasi erdiragarri bat jarraitzen zitzaion jauziari.»	(84)



ergel 'inozoa, tentela'	«Zer zen gizon hura? Ergela , hasieran pentsatu zuen bezala? Ala ondo trebatutako zelataria?»	(93)
ernai 'adi-adi, kontzentraturik'	«...Martin Saldias lasaitu egin zen zertxobait, ahots hark guztiz ernai zegoen gizon batena ematen baitzuen.»	(15)
eroria 'etsita, goibel'	«— Ea piska bat animatzen haizen. Oso eroria ikusten haut.»	(50)
errainu 'distira, argi izpia'	«Adarra zapaldu zuen errainu hura beregana oldartzen ikusi zuen, sastakai bat eskuan.»	(25)
errauts 'hausterrea, hautsa'	«...esan zuen Aranburuk, suaren gainera errautsa bota eta hurrengo egunerako bilduta utziz.»	(51)
errenditu 'lerratu, pasatu'	«Otorduan, hiru gizonen arteko elkarrizketa gerrako gorabeheretara errenditu zen.»	
esne-mami 'bikainena, preziatuena'	«...pribilegioa zuten bakar haietakoak, armada karlistaren esne-mami zen Gidari Konpainiakoak.»	(38)
estropozu egin 'tupust egin'	«...bideari adi tarteka aurkitzen zituzten sustrai eta harkaitzekin estropozu ez egitearren.»	(125)
etsigarri 'penagarria, txarra gertatu'	«...bere lehen hartu-eman zuzena armada karlistarekin, benetako soldaduekin, etsigarria zitzaion.»	(50)
ezbai 'zalantza, duda'	«...jende ausarta, ezbairik gabe, bere idealaren alde bizia emateko edo lagun hurkoa hiltzeko gertu zegoena...»	(22)
ezbaian egon 'zalantzatan egon'	«Agindua eman nienean, soldaduak ezbaian egon ziren piska batez...»	(129)
ezinegon 'urduritasuna, egonezintasuna'	«Bat-batean galdera batek gurutzatu zion burua: zergatik halako ezinegona ? Zergatik hegaldatzen ziren...»	(14)
ezjakin egin 'ezjakinarena egin, kokoloarena'	« Ezjakin egiten zuen bere burua, inuxente eta hitzontzi, eta halaxe moldatzen zen.»	(15)
ezkaratz 'atari gela'	«...oso gutxi ziren atariko farolak gauaren iluntasunari osten zizkion gauzak: ezkaratz eta ate handiaz gain (...) landareak bakarrik...»	(37)
ezproin 'zaldia ziztatzeko orpo-	«Zaldia ezproiaz zulatu eta muinoan behera abiatu zen, basoa osteraren nagusitzen zen alderantz.»	(13)
ferra 'herradura'	«Ezta ezer arrotzik aditzen ere, soilik bere zaldiaren ferra -hotsa lurra kolpatzean.»	(14)
fidagaitz 'susmakorra, mesfidatia'	«Oso gizon fidagaitza duk.»	(35)
fitsik 'ezertxo ere'	«Tarte batean, ez zuen fitsik esan. Gero, paperak tolestu eta, begirik altxatu gabe, galdetu zuen...»	(18)
florete 'ezpata mota bat'	«Loreekin batera, Lacosten floreteetako bat zegoen haren gainean pausatutik...»	(138)
galera 'hondamendia, porrota'	«Liberalek ez dute puska batean San Faustoko galera ahaztuko.»	(75)
gar 'suaren lama, sugarra'	«Saldiasek kriseiluaren garrean pausatu zuen begirada.»	(145)
garondo 'buruaren atzeko alde,	«Aldian behin, garondoan Barrezen eskua antzematen zuen. Burua altxatu eta zerbait ematen zion edatera, esnea edo.»	(81)
gertu egon 'prest egon'	«...jende ausarta, ezbairik gabe, bere idealaren alde bizia emateko edo lagun hurkoa hiltzeko gertu zegoena...»	(22)
gibeleratu 'atzeratu egin, atzeratu'	«...gizonetako bat harresia inguratzen duen zangara erori eta garrasi egin zuenean, denak gibeleratzen hasi ziren.»	(126)
gizonilo 'umemokoa'	«Arazoa da Aranburuk gizonilo bat bezala erabiltzen zuela...»	(145)



gogaikarri 'aspergarria'	«Baina geldirik egote hau gogaikarria da zinez.»	(63)
goibeldura 'argitasun gutxikoa'	«Nahiz eta, ilargiari esker, iluntasuna goibeldura baino ez izan, oso gutxi ziren atariko farolak gauaren iluntasunari osten zizkion gauzak...»	(36)
gupida 'errukia'	«— Gupida ez dago lehian borrokarekin, jauna!»	(93)
handinahi 'hantustea, harroputza'	« Handinahia eta harroa zen, baina ez zen arerioarentzat lanean ari.»	(88)
hasperen egin 'suspiriatu'	«Martin Saldiasek hasperen egin zuen.»	(14)
hasten zenero 'hasten zen bakoitzean'	«Ura eskatu, eta irrika biziz burduntzalitik edaten hasten zenero , azentu frantses arin batez...»	(74)
hazpegi 'aurpegikera'	«Saldiasen begiak iluntasunera ohituta zeuden ordurako, eta nahiko garbi bereiz zitzakeen Zumalakarregi jeneralaren hazpegiak .»	(43)
herdoil 'ugerra, oxidoa'	«— Osaba Tomasek hanketako herdoila kendu nahi ziguk.»	(54)
hertsi-hertsi begira 'adi-adi geratu, finko'	«Lacost hertsi-hertsi begira geratu zitzaion.»	(142)
hinki-hankarik gabe 'itzulingururik gabe'	«Salatu egin zutela jakin zezan, Saraz galdetu nion hinki-hankarik gabe.»	(27)
hitz-beste egin 'hizketagaia aldatu'	«Non dago jeneralaren zaldia? –galdetu zuen jarraian. Hitz-beste egin nahi zuen.»	(139)
hitzontzi 'berbalapikoa, asko hitzegiten duena'	«Ezjakin egiten zuen bere burua, inuxente eta hitzontzi , eta halaxe moldatzen zen.»	(15)
hobi 'zuloa, lurrean egina'	«...batailan hildako boluntario gehienak hobi orokorretan ehorzten zituzten.»	
hostotza 'hosto piloa'	«Ilargiaren argiak nekez zeharkatzen zuen basoaren hostotza eta oso ahulduta iristen zen erreka.»	(22)
hunkibera 'sentibera'	«Saldias ez zen gizon hunkibera . Aitzitik, bere akats nagusia (...) beste muturretik zetorkion, bere zomorrokeriatik...»	(39)
hutsal 'garrantzi gabekoa'	«...karlisten koartel nagusira heltzen ziren mezuak albiste hutsalez zipristinduak egoten ziren, oso laburrak izateaz gain.»	(41)
imintzioka 'keinuka'	«Martin Saldiasek imintzioka eta zaldiaren burutzarraren gainetik tentetuz egiten zuen oihi.»	(18)
inozo huts 'inuzente-inuzentea'	«Lehenagoan esan nizun bezala, Carrasco sargentua inozo hutsa da. Gizon ona baina inozo hutsa.»	(87)
iragazi 'filtratu'	«— Aurrena babak zuritu eta ur hotzean edukitzen dizkiat, eta gero, ondo iragazi ondoren, kazola batean jarri urdaia, perrexil sorta bat...»	(49)
irasagar 'menbriloa'	«Aparta dago –gaineratu zuen, jantokian ari ziren andreetako batek zerbitzaturiko irasagar ratafia -ri txurrut eginez.»	(101)
irri-karkaila 'algara'	«...gaineratu zien jarraian ardoaren aipamena aditu eta irri-karkailaz ari ziren bi soldaduei.»	(17)
iseka 'trufa, burla, ihakina'	«Altoa emateko azken unera arte itxarotea harrokeria iruditzen zitzaion, iseka .»	(38)
isildeia 'ixiltasunean egoteko agindua'	«...Zumalakarregik bera etortzekoa zela jakin eta (...) isildeia jo zezatela agindu zuela...»	(37)
isolatu 'aparte utzi'	«Agureak, amurrairekin batzuk erreka ertzeko putzu txiki batean isolatzea lortu zuelarik...»	(60)
isuri 'aldea, jarioa'	«Harrizko etxea zen, lau isuriko teilatuarekin.»	(35)



itzuri egin 'ixkin egin'	«...uztailaren 14an abiatu zen Bilbotik tropa liberalen kontrolei itzuri eginez ...»	(12)
izkin egitea 'itzuri egitea, saihestea'	«...nekazariak bazekien haiekin joatea denbora irabaztea zela, heriotza atzeratzea, izkin egitea ere bai, zorte piska batez.»	(57)
jaulki 'bota, atera'	«Bere onetik aterata, makakorro moduko bat jaulkiz , mahaiaren gainetik salto egin eta kalerantz jo zuen korrika.»	(120)
jaurti 'bota'	«... jaurti zuen Merinok aulkiaren bizkarraz bereizi eta teink jarriz-»	(77)
jauzi 'saltoa'	«Noizbehinka, garrasi erdiragarri bat jarraitzen zitzaion jauziari .»	(84)
jendaila 'jendilajea, jende txarra'	«Ez naiz jendaila horrengana inguratuko.»	(20)
jostatu 'jolastu'	«...Ihurtzongo edo inguruko herrietako neskatilak, elkarren artean irrika eta beraien ardurapean utzitako umeekin jostatuz .»	(91)
jukutria 'maltzurkeria'	«Baina, arian-arian, Aranbururen jukutria onuragarria gertatu zaigu.»	(109)
kankailu 'gizaki handikotea eta baldarra'	«Nor ote zen zaldiz eta uniformerik gabe zihuan kankailu hura? Begirale bat? Bidea erakutsi behar zien nekazaria?»	(55)
kaskezurra 'garezurra'	«...Gidari konpainiako kideek, koartel emateko prest ez zeudenean, beren arropetan josi ohi zuten kaskezurra .»	(102)
kinkan 'egoera larrian, estualdian'	«Serio, kontzentraturik, maisu bat zirudien azterketa bat zuzentzeko kinkan .»	(144)
koartel eman 'tregoa'	«...Gidari konpainiako kideek, koartel emateko prest ez zeudenean, beren arropetan josi ohi zuten kaskezurra.»	(102)
korroka 'kroaka, igelak kantuka'	«Herriko etheen gainean pausatutako isiltasuna igelek bakarrik narrasten zuten, esna eta korroka jarraitzen zuten eta.»	(51)
kriseilu 'oliozko argi lanpara'	«—Ez mahaiekin estropu egin —esan zion hurbilduz. Kriseiluak itzalita zeudenez, sakristiako argi bakarra beheko suak ematen zuen zen»	(47)
kuzkurtu 'uzkurtu, makurtu'	«Carandoleten kolumna ez zetorren uste ordurako eta karlistak mutu eta isil kuzkurtu ziren harkaitz artean.»	(65)
lagun hurkoa 'norbera ez dena, projimoa'	«...jende ausarta, ezbairik gabe, bere idealaren alde bizia emateko edo lagun hurkoa hiltzeko gertu zegoena...»	(22)
laian 'lurra lantzeko tresna, II	«"Etor hadi gurekin", zioten (...) eta laian edo segan harrapaturiko nekazariak bazekien haiekin joatea denbora irabaztea zela...»	(57)
larderia 'mehatzuzko tonua'	«...esan zuen tenienteak, lehengo larderia berberaz mintzatuz eta berari ametsetatik ateraraziz.»	(18)
lasaitua 'lasaitasuna'	«...esan zuen Martin Saldiasek, hartutako lasaitua disimulatuz.»	(19)
lazarri 'ikaragarria, urragarria'	«...bigarreanean, berriz, ondoren etorri ziren gertaera lazarriak , Gran Viako kondearen ihesa tartean.»	(115)
leher jota 'sats eginda, pot, leher eginda'	«Saldias zutitu eta ate aldera abiatu zen. Leher jota sentitzen zen.»	(123)
lehia 'norgehiagoka'	«...kolore desberdineko txapelez jantzitako bi soldadu multzo elkartzen direnean, berehala hasten dela lehia ...»	(70)
leialtasun 'fideltasuna'	«Gizon arrunt bat, bizitzaren gorabeherengatik, leialtasunez , bide arriskutsu bat hartu beharrean egokitutakoa.»	(23)
lerratu 'batetik bestera mugitu'	«Gauza bera egin zuen aldi hartan ere: (...) bere pentsamenduak aske lerra zitezen utzi.»	(50)
liskar 'istilua'	«Umore onean ematen zuen, liskarra dibertigarria suertatu balitzaio bezala.»	(31)



listarizko 'hariz eginikoa'	«Aranburuk barre egin zuen, aldi berean Saldiasi listarizko aulki batean esertzeko adierazten ziola.»	(48)
lohi 'likiskeria'	«Eskaera hark mesprezuaren lohia zeraman.»	(11)
makakorro 'orroea'	«Bere onetik aterata, makakorro moduko bat jaulkiz, mahaiaren gainetik salto egin eta kalerantz jo zuen korrika.»	(119)
makur 'bihurria, gaiztoa'	«Haren irritxoa xomorro makur bat bezalaxe aireratu zen.»	(16)
matxinatu 'errebelatu'	«Berehala, don Carlosen jarraitzaileak matxinatu egin ziren, aurrena Bilbon, hurrena Euskal Herri osoan...»	(12)
mikaztuta 'mingartuta, zapore txarrekoa'	«...esan zuen bat-batean Merino tenienteak ahotsa mikaztuta ...»	(109)
mindu 'haserretu, kabreatu'	«Ez zaitetz nirekin mindu . Hemengo gizon-saila ez da handia...»	(32)
mokote 'zapuztia, modu desatseginean'	«...oso aberatsa duk eta asko lagundu zioz gure auziari —erantzun zion Aranburuk mokote samar.»	(58)
muino 'mendiska'	« Muino baten aldapan gora jotzen zuen bideak, eta zaldiak arnas-purrusta bat bota, kexati, eta buruari eragin zion...»	(13)
muker begiratu 'mesfidantzaz edo mesprezios'	« Muker begiraten ziotela iruditzen zitzaion, ikerketa bat aurrera eramateko gai ez den ume koxkor bati bezala...»	(108)
murru 'harresia, horma'	«...parez pare murru txuri batekin egokitu zen arte.»	(137)
muzin 'inki-minki, gogo gabe'	«—Oso muzin ikusten haut...»	(59)
muzin egin 'uko egin, errefusatu'	«...inork ez zion gisa hartako gonbidapen bati muzin egiten .»	(116)
narrastu 'hondatu, estropeatu'	«Herriko etxeen gainean pausatutako isiltasuna igelek bakarrik narrasten zuten, esna eta korroka jarraitzen zuten eta.»	(51)
nekez 'kostata'	«Ilargiaren argiak nekez zeharkatzen zuen basoaren hostotza eta oso ahulduta iristen zen erre kara.»	(22)
odoltzar egin 'gaizki sentitu'	« Odoltzar egiten zuen gogoratze hutsaz.»	(35)
oholesi 'oholezko parapettoa edo hesia'	«...baina beren balak oholesi edo hondar-zakuekin egokitzen ziren, eta ahaleginak huts egiten zuen.»	(105)
oldartu 'gogo biziz joan'	«Zalaparta handia sortu zen jantokian, eta ofizial guztiak troparen bila oldartu ziren.»	(119)
oldartu 'errebelatu, matxinatu'	«Izuaren atzaparra bere giharreak atxikitzeke zorian zegoela sentitzen zuen, eta oldartu egiten zen posibilitate horren aurka...»	(18)
orpo 'oinaren atzeko aldea'	«Gero orpoen arabera jiratu eta gelatik atera zen.»	(94)
ostera 'berriro, berriz'	«Zaldia ezproiaz zulatu eta muinoan behera abiatu zen, basoa ostera terrenoaz nagusitzen zen alderantz.»	(13)
osterantzean 'bestela, ezipabere'	« Osterantzean , altoa eman zioten liberalen informazioa askoz zehatza- goa izango zatekeen.»	(22)
ostu 'lapurtu, ebatsi'	«Nahiz eta, ilargiari esker, iluntasuna goibeldura baino ez izan, oso gutxi ziren atariko farolak gauaren iluntasunari osten zizkion gauzak...»	(36)
pagotxa 'zortea, abagunea, egokiera'	«Nire iritziz, pagotxa ederra da.»	(104)
pairakor 'sufritzen dakiena, jasankorra'	«...halako distira gabetasun bat zuen, pairakor eta goibel bihurtzen zuena, abesti bati lotzeko ezgai edo.»	(40)



patu 'zoria, adurra'	«Izarrez eta patuaz hitzegiten duten liburuak zeuzkak.»	(52)
petralduta 'petral jarrita, tematuta'	«Saldiasek petralduta erantzun zion...»	(31)
piririka 'zilipurdika'	«Denbora puska bat zeramatenean elkarri ekingean eta lurrean piririka ...»	(29)
pontean 'bataiatzean'	«...persona batzuek bi izen izaten zituzten: alde batetik beraiena, pontean ezarri zitzaiena...»	(30)
profitatu 'aprobetxatu'	«Zenbaitetan, ilunpetan hariak mugituz eta nire sukaldari postuaren abantailak profitatuz , bestetaz baliatu naiz...»	(136)
ratafia 'pattarra, likorea'	«Aparta dago –gaineratu zuen, jantokian ari ziren andreetako batek zerbitzaturiko irasagar ratafia -ri txurrut eginez.»	(101)
sabai 'gelen goi alde'	«Berrito sabai aldera seinalatu eta lehen esandakoa errepikatu zuen...»	(82)
salatari 'salatzen duena'	«...gisa honetan harik eta salatariak , liberalek kanpamentuan zeukaten zelatariak albiste jakin zuen arte.»	(23)
sarraski 'triskantza, masakrea'	«Kronikarien esanetan, San Faustoko bataila sekulako sarraskia izan zen.»	(66)
sasi-lo 'erdi lo'	«...baina ez zeukan egunsentira arte han, lurraren gainean, sasi-lo geratzerik.»	(24)
sasiki 'maltzurkeriaz, azpikeriaz'	«Kanpamentuan sasiki sartutako zelataria bera ote?»	(54)
sastakai 'puinalea'	«Adarra zapaldu zuen errainu hura beregana oldartzen ikusi zuen, sastakai bat eskuan.»	(25)
segan 'belarra ebakitzen, kodainaz'	«"Etor hadi gurekin", zioten (...) eta laian edo segan harrapaturiko nekazariak bazekien haiekin joatea denbora irabaztea zela...»	(57)
sigi-sagatsua 'zeharka-meharka'	«Zaldiaren gainetik, boluntarioek beren txapelekin osatzen zuten lerro gorri, sigi-sagatsua ikusten zuen Martin Saldiasek...»	(55)
sinesgaiztasunez hartu 'faltsutat jo, mesfidati hartu'	«...dama aristokrata batekin hitzemandako zegoelako berria zabaldu zenean, asko izan ziren berria sinesgaiztasunez hartu zutenak.»	(62)
sobera 'larregi, asko'	«...hala eta guztiz ez zuten sobera hitzegin eta (...) hurrengo batean luzeago eta hobeto hitzegitekotan geratu ziren.»	(33)
sor 'astuna'	«Amorrazio sor eta sakona sentitzen zuen gertatutakoagatik...»	(127)
sukartuta 'sukarraz, kalenturaz'	«Aldika –zaurituta zegoelarik, sukartuta , Bilbotik eta Arenal Kafeko bere lagunartetik urrun...»	(73)
suminkor 'haserrekor'	«Gerra garaian, mundu guztia suminkor bihurtzen zen»	(32)
susmo 'errezeloa'	«...baina halako ezinegon batek, susmoa baino areago deserosotasuna zen zerbaitek...»	(23)
talaia 'begiralekua, toki altua'	«Denak talaian zeuden Zumalakarregi haitz-gain batean, punturik nabarmenenean, noiz azalduko.»	(65)
teink jarri 'zuzendu'	«...jaurti zuen Merinok aulkiaren bizkarraz bereizi eta teink jarri ...»	(77)
tolestu 'plisatu, doblatu'	«Tarte batean, ez zuen fitsik esan. Gero, paperak tolestu eta, begirik altxatu gabe, galdetu zuen...»	(18)
total egin 'ahomoteldu, isilunea'	«Merino tenienteak piska bat total egin zuen erantzun baino lehen.»	(123)
trufaz 'txantxatan, burlaz'	«Irriz eta trufaz , Margarita de Mendoza eta bere lagunek heriotzara eramana zuten adolezente hura.»	(120)



tupustean 'ustekabea, ezustean'	«Bat-batean, zaldia gelditu egin zen tupustean , eta Martin Saldiasak lepotik heldu behar izan zion ez erortzearen.»	(21)
txapaka egin 'adiskidetasunezko kolpetxo	«—Ondo lo egin, <i>débutant!</i> —esan zion Lacostek Saldiasi pasiluan gelditu eta besoan txapaka eginez. »	(141)
txepel 'beldurtia, kakatia'	«” Txepelen gogo beroaz, esan nahiko duzu”, erantzun zuen alargunak...»	(56)
umegorri 'ume mokia, gaztetxo'	«Okerrena da axeri hori berearekin atera dela ia beti, umegorri bati baino errazago sartu zidala ziria.»	(89)
usnaka 'usainka'	«Saldiasak ez zuen ezer esan eta lapiko artean usnaka hasi zen. Gose zen berriro ere.»	(100)
uzkurtu 'kikildu, beldurtu'	«...bere gogoz kontra, jauregiaren inguruan arnasten zen giroak uzkurtu egiten zuen.»	(39)
xerratan zatitu 'xafla meheak egin'	«...hogeita lau ordutan ontzen eduki nian olio, gatz xehea, xerratan zatitutako tipula eta perrexilarekin.»	(100)
xomorro 'intsektua'	«Haren irritxo xomorro makur bat bezalaxe aireratu zen.»	(16)
xume jantzita 'arropa arruntekin'	«Oso xume zegoen jantzita , alkandora txuri eta praka gris batzuekin.»	(103)
xuxurla 'susmurra, ahots ixila'	«...hantxe basoaren mintzoa, zuhaitzen dardarra eta hosto berdeen xuxurla ; hantxe, halaber, txorien mintzo zorrotza...»	(17)
xuxurlari 'ahapeka egiten dena'	«Isilune bat egon zen aurrea. Gero, ahots xuxurlari batzuk.»	(24)
zalaparta 'nahaste zaratatsua, abarrotsa'	« Zalaparta handia sortu zen jantokian, eta ofizial guztiak troparen bila oldartu ziren.»	(119)
zanga 'erretena, ubidea, kuneta'	«...gizonetako bat harresia inguratzen duen zangara erori eta garrasi egin zuenean, denak gibeleratzen hasi ziren.»	(126)
zela 'zaldien gaineko jazarlekua'	«Martin Saldias egonezinez mugitu zen bere zela gainean.»	(16)
zelatari 'zelatzen duena'	« Zelatari zen, eta etsaiez josita ez zegoen edozein toki bere etxe bihurtzen zen berehala.»	(13)
zenduta 'hilda'	«Hura zenduta , Bizkaiko karlistek beren nagusietako bat galdua zuten.»	(41)
zentzatu 'zentzudun bihurtu, seriotu'	«—Lacost ez da inoiz zentzatuko —komentatu zuen Merinok.»	(108)
zinez 'egiaz, benetan'	«...zelatari horrek Sara zuela izena, baina ez zekiten izen hori —Martin Saldiasen amarena, zinez —, gizonetzko bati zegokiola.»	(19)
ziria sartu 'engainatu, iruzur egin'	«Okerrena da axeri hori berearekin atera dela ia beti, umegorri bati baino errazago sartu zidala ziria. »	(89)
zokoratuta 'inguratuta, arriskuan'	«Bere burua zokoratuta ikusten bazuen, zaldia zen bere ihesbide bakarra.»	(18)
zomorrokeria 'izaera desatsegina'	«...ez zen gizon hunkibera. Aitzitik, bere akats nagusia (...) beste muturretik zetorkion, bere zomorrokeriatik , are bere hoztasunetik...»	(39)
zozolotuta 'lelotuta, tentelduta'	«Honek sastakaia altxata jarraitzen zuen, zer egin ez zekiela, ustekabeak zozolotuta utzi balu bezala.»	(30)
zuhamuxka 'zuhaixka, zuhaitz gisakoak'	«Ez zuen ezer apartekorik ikusten zuhamuxka eta zuhaitzen berde ilunaren artean.»	(14)
zuztar 'sustrai, zaina'	«Saldiasak zuztar bat atzimurkatu eta loretxo batzuk eraman zituen sudurrera.»	(97)